Galdakaoko Udala

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA- DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA
Miguel Angel Gómez Viar
Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Foru Diputatua
Dpto. de Transportes y Movilidad Sostenible
Iparragirre kalea 21, 5.
48009 BILBAO

**Iñigo Hernando Arriandiaga (1, guztira 1)**
Alkate / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 09/06/2022
HASH: 5f351e8bb814f7f9c46adac41f4ab895

Gómez jaun agurgarria:

Zurekin harremanetan jartzen naiz, Garraioa eta Mugikortasun Jasangarria sustatzeko Foru Diputatua zaren heinean, hurrengo gaiarekin bitartekaritza lanak egin ditzazun.

Orain dela urte batzuk, Galdakaok metroarekin garraio publiko bidezko lotura izan zezan, “lanzadera” lez ezaguturiko autobus linea jarri zen martxan. Gaiak hainbat aldaketa izan ditu denboran zehar eta egun metroarekiko lotura Bizkaibuseko 3932 lineak betetzen du Boluetako geltokiraino.

Hala ere, jakina denez, galdakoztarrek Etxebarriko metroko geltokiarekin lotura izatea hobetsi zuten egindako galdeketan. Ez hori bakarrik, baizik eta linea horretako gidarien sindikatuek ere dokumentu bat sinatu zuten Galdakaoko Udalarekin batera Etxebarriko geltokia lehenetsiz, komunera joateko premiagatik edota kokapenaren segurtasunagatik, besteak beste. Horrez gain, Fekoor, Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko

Me pongo en contacto con usted para solicitar su intermediación como Diputado Foral de Transporte y Movilidad Sostenible respecto al siguiente tema.

Hace unos años se puso en marcha una línea de autobús conocida como lanzadera para que Galdakao tuviera una conexión en transporte público con el metro. El tema ha sufrido varios cambios a lo largo del tiempo y actualmente la conexión con el metro la cubre la línea 3932 de Bizkaibus hasta la estación de Bolueta.

Sin embargo, como es sabido, las y los galdakoztarras, mediante consulta popular, prefirieron la conexión con la estación de metro de Etxebarri. No solo eso, sino que también los sindicatos de conductores de esta línea firmaron un documento junto al Ayuntamiento de Galdakao priorizando la estación de Etxebarri por la necesidad de ir al baño o por la seguridad de su ubicación, entre otras razones. Además, Fekoor, Federación Coordinadora de Personas con



Baliozkotze Kod.: 7GTCW4GMGH63N2YCNNEGTXMKC | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 2

Federazio Koordinatzailea, geltokia Etxebarrin egotearen alde agertu zen, Galdakaoko Udalarekin batera eskaeraren alde sinatuz. Arrazoi nagusia: mugikortasuna errazteko Etxebarriko geltokiak askoz ere baldintza hobeak betetzen dituela.

Horiek horrela, orain dela aste batzuk metroa Galdakaora heltzeko akordioa adierazi zuten bai Eusko Jaurlaritzak, bai Bizkaiko Foru Aldundiak. Hori dela eta, metroaren etorrerak “lanzadera” Etxebarritik mugaturiko denboran zehar pasatzea suposatuko lukeen proposamena aztertzeko, zure sailak bi udaloi bilera baterako deia egitea eskatzen dizut, hiru aldeontzat zein herritarrontzat mesedegarria izango baita Galdakao, Etxebarri eta Foru Aldundiaren arteko elkarlana.

Arduradun publikook elkarrizketaren bidez herritarrontzat onuragarriak diren irtenbideak bilatzeko helburua kontuan harturik, eskaera aintzat hartuko duzulakoan, adeitasunez,

Discapacidad Física u Orgánica de Bizkaia, se mostró a favor de que la parada esté en Etxebarri, firmando junto con el Ayuntamiento de Galdakao a favor de la petición. La principal razón: que la estación de Etxebarri cumple con unas condiciones mucho mejores para facilitar la movilidad.

Así las cosas, hace unas semanas tanto el Gobierno Vasco como la Diputación de Bizkaia presentaron el acuerdo para la llegada del metro a Galdakao. Por ello, para analizar la propuesta que supondría que la lanzadera pasara por un tiempo limitado por Etxebarri hasta la llegada del metro, le ruego que desde su departamento convoque a los dos ayuntamientos a una reunión, con la certeza de que la colaboración entre Galdakao, Etxebarri y la Diputación Foral será beneficiosa tanto para las tres partes como para la ciudadanía.

Teniendo en cuenta el objetivo de los responsables públicos para encontrar soluciones favorecedoras para la ciudadanía a través del diálogo y confiando en que atienda la petición, le saluda atentamente,

Iñigo Hernando Arriandiaga
Alkatea

Galdakaon, 2022ko ekainaren 9an

Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao
Tel.: 94 401 05 00. IFK / CIF P4804400B
**www.galdakao.eus**

Baliozkotze Kod.: 7GTCW4GMGH63N2YCNNEGTXMKC | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 2